Bergarako Udala

ARAUTUTAKO APARKALEKUEN UDAL ZERBITZUAREN ORDENANTZA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala.

Onartuta: Udalbatzak 2006/02/23an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2026/11/05ean

ARAUTUTAKO APARKALEKUEN UDAL ZERBITZUAREN ORDENANTZA.

1. artikulua

Trafiko eta Zirkulazio arloko Ordenantza hau emateko eskumenak Udalari eman dizkioten lege-arauak: Apirilaren 2ko 7/85 Legea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituena, 25.2.b) artikuluan; eta martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilearen 38 artikulua –Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legea onartu zuen Legearen testu artikulatua onartzen duen martxoaren 24ko 5/1997 Legearen artikulu bakarraren b) idazatiak aldatua– (gaur egun, urriaren 30eko 6/2015 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutako Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 39. artikuluan arautzen da).

2. artikulua

Ordenantza honen helburua da araututako aparkalekuen udal zerbitzu publikoa arautzea.

3. artikulua

Zerbitzu publiko horren helburua da aparkaleku eskariari aurre egitea, hiriaren kalitatearen eta irisgarritasunaren helburu orokorrak kontuan hartuta, erabilera publikoa duten bide eta aparkalekuetan ibilgailuen aparkatze-aldiak modu funtzional batean antolatzea, eta betearazteko ere neurriak ezartzea.

4. artikulua

Araudiaren barruan aparkatzeko denbora-tartea mugatuko da, baita kokalekuak ere, guneak eta ordutegiak bereizita, ordenantza honetako arauen arabera. Araututako aparkaleku gisa behar den bezala seinaleztatuta dauden gune edo bide publikoetan ibilgailu bat aparkatzeagatik ez da ordaindu beharrik izango.

5. artikulua

Ordenantza honetako 3. artikuluan zehazten diren bide publiko eta aparkalekuetan aparkatu ahal izateko arau orokor eta zehatz guztiak betetzeaz gain, eta ibilgailuak aparkatzeko seinaleek adierazitakoa jarraitzeaz gain, haizetakoaren barnealdean, eta kanpoaldetik osorik ikusteko moduan, makina automatikotik hartu eta aparkatzea baimentzen duen tiketa edo baimendutako guneetarako aplikagarri den guneko biztanlearen bereizgarria jarri beharko da.

Aparkatzeko baimena, horretarako ezarritako sistemaren bidez (APP) egiten bada, kasu horretan ez da beharrezkoa izango haizetakoaren barnealdean tiketa jartzea.

Modu berezian, eta trafikoaren edota aparkalekuen gorabeherek hala eskatzen dutenean, Alkatetza-lehendakaritzak ordenantza honetan araututako aparkatze-baldintzak aldi baterako aldatu edo indar gabe lagatzeko egoki deritzon neurriak hartu ahal izango ditu.

Aparkaleku mugatu moduan seinaleztatutako guneetan ez dute aparkatzeko tiketik jarri beharko ondoren zehazten direnak:

- Zamalanak egiten ari diren ibilgailu komertzialak.

- Autotaxi ibilgailuak, betiere gidaria zerbitzua ematen ari denean eta bertan dagoenean.
- Larrialdietako ibilgailuak zerbitzua ematen ari direnean.
- Ibilgailu automobilak, betiere gidaria edo bidaiariren bat barruan dagoenean eta aparkatze-aldia 5 minutu baino gutxiagokoa denean.

6. artikulua

Aparkatze-aldiak ondorengo guneetan eta orduetan mugatuko dira:

1. gunea (Oxirondo plaza), astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 21:00etara, larunbatetan 09:00etatik 13:30era.

2. gunea (San Martin plaza), astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 21:00etara.

3. gunea (Ibargaraiko parking publikoa), astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 21:00etara, larunbatetan 09:00etatik 13:30era.

4. gunea (Ibargarai 1-2-4-6-8-10-12-14, Zurradero, T. Aranzadi, Joan XXIII.a plaza, Fraiskozuri, Irizar, Herrilagunak 3, Domingo Irala 7-9, Kruz Gallastegi eta Bideberri, astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 21:00etara, larunbatetan 09:00etatik 13:30era.

5. gunea (Mugikortasun urriko pertsonentzat diren erabilera orokorreko aparkalekuak), astelehenetik igandera, 09:00etatik 21:00etara.

7. artikulua

Ordenantza beteko dela bermatzeko, kontrol zerbitzu bat ezarriko da, horretarako behar diren bitarteko material zein pertsonalekin.

8. artikulua

6. artikuluan zehaztutako gune bakoitzak ondoren zehazten diren tokiak hartzen ditu bere baitan:

- (1. gunea) Oxirondo plazako gunea: Oxirondo plazako gunea (1. gunea): Udal azokaren eta Usondoko parkearen artean, Santa Marina elizaren ondoan dauden aparkalekuak.
- (2. gunea) San Martin plazako gunea: Errege Seminarioaren fatxadaren ondoan eta plazako 3 zk.ko etxearen (gaur egun «Banco Guipuzcoano») fatxadaren ondoan dauden aparkalekuak.
- (3. gunea) Parking publikoko gunea: Ibargarai 3an dagoen lurrazpiko parking publikoko aparkalekuak.
- (4. gunea) Ibargarai (1-2-4-6-8-10-12-14), Zurradero, T. Aranzadi, Joan XXIII. plaza, Fraiskozuri, Irizar, Herrilagunak 3, Domingo Irala 7-9, Kruz Gallastegi eta Bideberri kaleetako aparkalekuak.
- (5. gunea) Mugikortasun urriko pertsonentzat diren erabilera orokorreko aparkalekuak.

9. artikulua

Aparkatzeko gehieneko denbora-tarte hauek ezartzen dira:

- 2. gunea (San Martin plaza): astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 21:00etara, gehienez ere 30 minutu. Ezingo da gune berera bueltatu ondorengo 3 orduetan. 21:00etatik 09:00etara ez da gehienezko denbora-mugarik jartzen.

- 1. eta 3. guneak (Oxirondo plaza eta Ibargaraiko parking publikoa): Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 21:00etara eta larunbatetan 09:00etatik 13:30era, gehienez ere 3 ordu. 21:00etatik 09:00etara, larunbatetan 13:30etik aurrera, igandetan eta jai-egunetan ez da gehienezko denbora mugarik jartzen.

- 4. gunea (Ibargarai 1-2-4-6-8-10-12-14, Zurradero, T. Aranzadi, Joan XXIII.a plaza, Fraiskozuri, Irizar, Herrilagunak 3 , Domingo Irala 7-9, Krruz Gallastegi eta Bideberri): Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 21:00etara eta larunbatetan 09:00etatik 13:30era, gehienez ere 90 minutu. 21:00etatik 09:00etara, larunbatetan 13:30etik aurrera, igandetan eta jai-egunetan ez da gehienezko denbora-mugarik jartzen.

1., 3. eta 4. guneetan, eskatutako denbora igaro ondoren, ibilgailua tokiz aldatu beharko da eta ezingo da aparkatu aparkatze-aldia mugatuta duen gune bakar batean ere ondorengo hiru orduetan.

Guneko bereizgarria duten ibilgailuek 4. gunean aparkatu ahal izango dute denbora-mugarik gabe, beti ere, guneko biztanlearen bereizgarria ikusgarri izanda. Aparkatze-aldia araututa duten gainontzeko guneetarako gainontzeko erabiltzaileentzat ezarritakoa bete beharko dute.

- 5. gunea (Mugikortasun urriko pertsonen erabilera orokorreko aparkalekuak): gehienez 24 ordu. Ezingo dute aparkatu TAO gune barruan dauden mugikortasun urriko pertsonentzako aparkalekuetan ondorengo 4 orduetan.

- – Haizetakoaren barruan ondo ikusteko moduan erakutsi beharko dute mugikortasun urriko pertsonen txartela, tiketarekin batera, salbu eta APParen bidez aparkatzeko baimena lortu bada.

Mugikortasun urriko pertsonen erabilera orokorreko aparkalekuetan lekurik ez balego, beste guneetan (1, 2, 3 eta 4 guneetan) aparkatzeko aukera izango dute 5. guneko baldintza berdinetan.

10. artikulua

Alkatetza-lehendakaritzak bereizgarri berezia eman ahal izango du gune jakin baterako eta urtebeteko balioarekin:

- Ordezkaritza diplomatikoen ibilgailuendako.

- Udalaren iritziz baldintza bereziak dituzten ibilgailuendako.

Bereizgarri hori lortzeko, Alkatetza-lehendakaritzak kasu bakoitzean eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Bereizgarri berezi horri ere Ordenantza honetatik dagozkion artikuluak ezarriko zaizkio.

11. artikulua

Ordenantza honetako artikuluak hausteak –eta Alkatetza-lehendakaritzak honen garapenean ezarritako beste xedapenen bat hausteak ere bai– trafiko eta zirkulazioko ordenantzaren arau-hauste moduan ulertuko dira, eta legez ezarritako prozeduraren bidez zigortuko dira.

Ondorengoak hartuko dira arau-haustetzat:

a) Aparkatzeko denbora tartea gainditzea.

b) Tiketa ez hartzea edo ikusten den tokian ez jartzea.

c) Aparkatze-aldi mugatua duen 2. gunean aparkatzea berriz ere, aparkatze-aldia bukatu ondoren eta denbora-tartea osorik ez erabili arren, 9. artikuluak ezarritako hiru orduko epea pasatu aurretik.

d) Aparkatze-aldi mugatua duen edozein gunetan aparkatzea berriz ere, aparkatze-aldia bukatu ondoren eta denbora-tartea osorik ez erabili arren, 9. artikuluak ezarritako hiru orduko epea pasatu aurretik.

e) Manipulatutako, faltsututako edo iraungitako tiketa edo bereizgarria erabiltzea.

f) Iruzur-asmoarekin erabiltzea “Mugikortasun urriko pertsonen” txartela edo ikurra, hau da, mugikortasun urria ez duen pertsona batek erabiltzea edo txartel horren jabea ez den beste edozein pertsona garraiatzeko erabiltzea.

12. artikulua

11. artikuluak zehaztutako arau-hausteak arinak izango dira eta trafikoari buruzko udal ordenantzan ezarritako isun kopurua aplikatuko da; e) atalean zehaztutako arau-hausteari, indarrean dagoen araudiaren arabera, arau-hauste arinentzat zehaztutako isun kopuru altuena aplikatuko zaio.

13. artikulua

Ordenantza honetan jaso ez diren kasuetarako, ondorengoak hartuko dira kontuan: Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legea, eta bere garapenerako Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra.

14. artikulua

Guneko biztanletzat hartuko dira Trafiko Zuzendaritza Nagusian artikulu honetan zehazten diren kaleetan erregistratuta dauden ibilgailuak, baldin eta jabea ibilgailuaren helbide berean erroldatuta badago.

Guneko biztanletzat hartuko dira ere beren zerbitzura enpresa-auto bat duten gidariak. Kasu horretan, aurreko paragrafoan jasotako betekizunaren ordez, eskatzailearen eta ibilgailuaren enpresa titularraren arteko lan-harremana egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da. Enpresak ibilgailua esklusiboki erabiltzeko baimena ematen diola justifikatu beharko da, lan-ordutegiaren barruan zein kanpoan. Eskatzailea gainera artikulu honetan zehazten diren kaleetako batean egon beharko da erroldatuta.

Kale-zerrenda: S. Pedro, Mizpildi, Goenkalea, Artekalea, Komenio, Arruriaga, Barrenkalea, San Martin Agirre plaza, Bidekurutzeta, Ibargarai (1-2-4-6-8-10-12-14), Zurradero, T. Aranzadi, Irizar, Irala, Joan XXIII.a plaza, Herrilagunak, Fraiskozuri, Simon Arrieta, Kruz Gallastegi, Zubieta 2-4 eta Masterreka.

Guneko biztanlearen bereizgarria lortzeko eskaera aurkeztu beharko da ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia konpultsatuarekin batera.

Bereizgarrian baimendutako ibilgailuaren matrikula, zein gunetan izango den aplikagarri eta zein urtetan egongo den indarrean zehaztuko dira.

Guneko biztanlearen bereizgarria emateak tasak sorraraziko ditu; Udalak zehaztuko ditu tasa horiek, urtero, ordenantza fiskalaren bidez.

Guneko biztanlearen bereizgarria lortzeko bete beharreko baldintzaren bat aldatzen bada baimendutako epean, bereizgarria baliorik gabe geldituko da eta egoera eman denetik kontatzen hasita, 7 egun naturaleko epean bueltatu beharko da udaletxera, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Xedapen gehigarri bakarra

Ordenantza hau aplikatu eta interpretatzeko eman beharreko aginduak emateko gaitasuna ematen zaio Alkatetzari.

Azken xedapena

Ordenantza hau –bere hamalau artikuluekin, xedapen gehigarri bakarrarekin eta azken xedapenarekin– indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo astegunean

Indargabetzeko xedapena

Ordenantza hau indarrean jartzen denetik aurrera, orain onartzen den testuaren aurkakoak diren edo horrekin bat ez datozen maila bereko edo beheragoko xedapena guztiak indargabetu egingo dira.

Halaber, espresuki indargabetzen da Udalbatzak 2001eko uztailaren 23an aparkamendu arautuaren udal zerbitzuaren ordenantza (GAOn 2001/10/10ean argitaratuta) eta Udalbatzak 2009ko maiatzaren 25ean onartutako aldaketa (2009/07/30eko GAOn argitaratua).